

sarrera

Herritar lagun,

Azken hilabeteetan eginiko eta aurrerantzean burutuko ditugun hainbat ekimenen berri ematera gatozkizue ohikoa den moduan. Arau Subsidiarioen errebisioari haserako onarpena eman eta gero, jendaurrean da orain. Gai honek berebiziko garrantzia du, bertan zehaztuko baitira Ataunen etorkizunerako zutabe nagusienak. Zutabe nagusi horietako bat izango da Joxemiel Barandiaran Kultur Parkea ere, eta amaitu berri da honi dagokion proiektuaren erredakzioa.

Etorkizunerako planeamendu hauez gain, ugari dira eskuartean ditugun ekimenak. San Martingo erdigunearen berreskuratzea aurrera doa eta Aia eta San Gregorioko plazen urbanizazio proiektuei ekingo diegu orain. Herribideari ere jarraipena emango zaio, Ergoienatik San Gregoriora lehenik eta San Martindik Lazkaoa ondoren. Udaletxearen berritze lanen azken faseko lanak ere hasiak dira egiten San Martingo herriko komunekin batera. Industrialdea ere aurrera doa bertan eraikiko delarik Udal-biltegia.

Elkarbizitza suspertu asmoz ugari dira Udaletik bultzatu edo eta babestu diren kultur eta kirol ekimenak, baina aipatu gabe ezin utzi herri ondarea berreskuratu nahiez burutu zen Zaharkinak proiektua eta zentzu berean egin den Larruntza Errotaren erosketa ere.

Muskiko pinudia atera ondoren berriro ere aldaketak egitea, eta Amunaringarakoa inguruan erretako pinudia garbitu eta birlandatzea aipa gennitzake mendi mailan aurtengo negurako lanik garrantzitsuen moduan.

Eta gizarte zerbitzuak hobetu eta zabaltzeko egunez egungo ahaleginarekin batera, esan gabe ezin utzi Lazkao eta Olaberritarrekin batera, Lazkaon adinekoentzako zerbitzu anitzeko egoitza bat egiteko lantzen ari garen egitasmoa.

Bidea eginez egiten da, eta ugari dira ataundarrok ematen ari garen pausoak, ugari ere etorkizunerako ditugun erronkak. Askatasunez eta eskubide zapalketarik gabe, ezadostasun eta adostasunetan, denok ahalegin horretan jarraitzea da gure desioa. Ea horrela den,

Aitor Auzmendi Asurabarrena

Alkatea

sakonean

2003rako Udal aurrekontua

Herribide zaharra

Joxemiel Barandiaran Kultur Parkea

San Martingo erdigunearen berreskuratzea

Aia eta San Gregorioko plazen urbanizazioa

Larruntza errota ikertu eta erosi da

Udaletxearen berritze lanen 3. fasea

Bi etxe enkantera

Herri basoetan mozketa eta aldaketak

Zaharkinak

Amazoniarrekin bat, ataundarrak

Igerilekua aztergai

Ataunek arazoak ditu baserri bideak
egokitzen jarraitzeko

Udal biltegia Industrialdean

Batasunaren ilegalizazioaren aurka

2003rako UDAL AURREKONTUA

Udal Osoko Bilkurak, 2002 urtea amaitu aurretik egindako azken batzarraldian, hastera zihoan 2003. urterako aurrekontua onartu zuen. Bilkura hau abenduaren 26an egin zen.

Onartutako aurrekontuaren kapitulukako laburpena ondorengo hau da:

KAPITULUA	IZENDAPENA	PEZETAK
	GASTUAK	
	A) Eragiketa arruntak	
1	PERTSONALA	193.758,93
2	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUAK	406.556,00
3	FINANTZA GASTUAK	3.259,82
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	67.851,77
	B) Kapital eragiketak	
6	INBERTSIO ERREALAK	493.500,00
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	27.537,96
9	FINANTZA PASIBOAK	31.384,52
	GASTUAK GUZTIRA	1.223.849,00
	SARRERAK	
	A) Eragiketa arruntak	
1	ZUZENEGO ZERGAK	153.464,00
2	ZEHARKAKO ZERGAK	18.000,00
3	TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	154.770,00
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	634.272,00
5	ONDARE SARRERAK	30.083,00
	B) Kapital-eragiketak	
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	233.260,00
	SARRERAK GUZTIRA	1.223.849,00

IA MILIOI

ERDI EURO

AURREIKUSI

DIRA

INBERTSIOETARAKO

Ekitaldi honetan inbertsioen atala 500 mila euro ingurukoa da, hau da, aurrekontu sarrera arrunten % 50 a eta aurrekontu osoaren % 40a.

Ataungo Udalak bere diru-sarrera arruntetatik inbertsioetara zuzendu ditzaken diruak ia 320 mila euro dira. Honez gain beste 233 mila eurotako sarrerak aurreikusten dira kapital transferentzi kapituluaren, hauek ere inbertsioak finantzatzeko erabiliko direnak.

Ondorengo lerroetan atalez-atal zehazten da 2003. urteko aurrekontua:

I. GASTUAK

1.1. Pertsonala (193.758,93):

Udal langileen soldatak eta hauen gizarte segurantzaren ordainketak daude atal honetan aurreikusita. Ohi-koak 6 langile izan arren, lan berezi-entzako kontratatzen diren langileen soldatak ere hemen sartzen dira.

1.2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak (406.556,00):

Atal zabala da hau. Hemen sartzen dira Udal eraikuntza eta gaineratuen kontserbazio, mantentze eta artapenak, eta hauen funtzionamenduak sortzen dituen ohiko gastuak, energia elektrikoa eta aseguruak adibidez. Baita Udalak ematen dituen hainbat zerbitzuren kostua ere. Hona hemen adibide batzuk:

W Bide publikoen mantentze eta kontserbazioa (Baserrietako bideena barne).....	31.550
W Ur sarea eta saneamenduaren kontserbazio eta mantentzea	15.000
W Udaletxea, Atsedan-Toki, Eskola, Mediku-etxeak, hilerriak, Auzoeta Udal kiroldegia, Zelai frontoia eta Erroipe aterpearen kontserbazio eta mantentzea	19.350

W Makineria, instalazioak eta tresneria.....	3.450
W Ekipamendu informatikoa ..	8.500
W Bulegorako materiala	9.000
W Liburutegirako erosketak	3.200
W Udaletxea, Atsedan-Toki, Eskola, Mediku-etxeak, hilerriak, Liburutegia eta San Gregorio Elkargunea, Auzoeta Udal kiroldegia, Zelai frontoia eta Erroipe aterperako hornidurak (argi indarra, gasolioa ...) ..	26.810
W Herri argiteriaren energia elektrikoa.....	16.000
W Ur Kontsortzioari deposituetatik irteten den uraren arabera ordaindu beharrekoa	42.000
W Udaletxea, Eskola, Osasun-etxeak, eta Auzoeta Udal kiroldegia telefono eta posta zerbitzuak	12.980
W Aseguruak	8.925
W Harrera ofizialak	3.000
W Udalberri aldizkaria	3.245
W Gastu juridikoak	3.600
W Herriko jaiak	35.550
W Garbiketa zerbitzuak: Udaletxea, Mediku etxeak, Eskola, Zelai frontoia, herriko komunak	36.676
W Zabor bilketa zerbitzua (Sasieta).....	43.455
W Hirigintza mailako azterketa eta lan teknikoak	18.840
W Tributuen gestioagatik Foru Aldundiari eta A.T.R.-ri	4.300
W Gestoria, itzulpengintza eta antzeko zerbitzu batzuk.....	3.500
W Beharrean daudenei etxez-etxeko laguntza.....	22.000
W Aldi baterako lan kontratazioak	
W Herri Antzokiaren ustiaketa..	13.980

ERGOIENATIK SAN
GREGORIORAKO
OINEZKO HERRI-
BIDEA IZANGO DA
2003ko
INBERTSIORIK
GARRANTZITSUENA

UDALETXEAREN 3. FASEA EGINGO DA

UDAL ZERGAK %3'9 IGOKO DIRA 2003AN

wAuzoeta Udal kiroldegia-
ren ustiaketa 12.560

wUdal langileen dieta eta
kilometroak 1.505

wAlderdiei dirulaguntzak eta
zinegotzien dieta eta km. 6.010

Zerrenda luzeegia ez egitearren, par-
tida batzuk aipatu gabe gelditu dira eta
beste batzuk elkarrekin batu dira.

1.3. Finantza gastuak (3.259,81):

Aurreko urteetatik datozen eta or-
daintzen ari garen kredituei dagoz-
kien interesei buruzkoa da diru izen-
dapien hau.

1.4. Transferentzia arruntak (67.851,77):

Instituzio, elkarte eta pertsona ez-
berdinei ekimen jakin batzuk aurrera
eraman ahal izateko luzatzen zaizkien
diru ordain eta laguntzak sartzen dira
atal honetan:

wForu Diputazioari:
Arantzamendiko larre
aprobetxam.....400

wEnerio-Aralar Mankomunitatea ..600

wEudel 300

wUdalbiltza 1.800

wGoieki 6.010

wGizarte Larrialdietarako
Laguntzak: beharrak dituzten
familiei, eta abar12.000

wJubilatuena ekintzetarako5.560

wKultur eta kirol ekintzetarako.....
..... 20.860

wEskolaz kanpoko kirolaren
dinamizatzailerak 2.404

wBestelako gizarte zerbitzuak
(0,7 ekimena, Gurutze Gorria,
Odol-emaileak, Seaska,
Nafarroa Oinez e.a...) 7.400

wGOIMEN 6.010

1.6. Inbertsioak (493.500):

Ondorengo hauek dira atal hone-
tan 2003rako aurreikusi diren inber-
tsioak:

wHerri argiteriaren berrikuntza..6.000

wUr-hornidura sarearen
berrikuntza 6.000

wHerri bidea, Ergoiena-
San Gregorio 220.000

wBaserri bideak 36.000

wHilerrietako nitxoien tapak ..6.000

wUdaletxea berritze lanen
3. Fasea eta komunak..... 140.000

wTeknologia berrien garapen
proiektua 12.000

wJoxemiel Barandiaran interpretazio
zentroa 30.000

wSan Gregorio auzoko plazaren
urbanizazio proiektua 18.000

wAia auzoko plazaren proiektua
..... 12.000

wHerri basoetan inbertsioak ..1.500

wIV. Ataun aztergai bekaren
argitaratzea6.000

1.7. Kapital transferentziak (27.537,96):

Atal honetan, inbertsio jakin ba-
tzuk egin ahal izateko beste instituzio
batzuei zuzentzen zaizkien laguntzak
(Ataun dagokion diru ordaina) sar-
tzen dira:

wBerritzegune (irakasleei babes) a
dela eta, Ordiziako Udalari 450

wAzpiegitura hidraulikoen kanona
dela eta Ur Kontsortzioari ..22.060

wGoierriko Lanbide Eskolako
inbertsioetarako Goierriko Herrien
Ekintza Fundazioari5.027

1.9. Finantza pasiboak (31.384,52):

Aurrez aipatu dugu Udala ordain-
tzen ari den kredituen interesei aurre

egiteko atala. Atal hau aldiz, kreditu horiei dagokien amortizazioa ordaintzeko da, aurtengoan 31.384,52 euro aurreikusi dira horretarako.

Eta bestalde, gastuak zein arlotara bideratzen diren begiratzuz sailkatzen badiugu berriz, eta garrantzitsuenen aipamena eginez, honako hau daukagu:

Gizarte Zerbitzuak (47.432,50):

Gizarte langilearen gastuak eta Etxez etxeko laguntza zerbitzua ditugu hemen atalik aipagarrienak.

Jarraian azaltzen dituen ataletan aretoen mantenimendu gastuen aipamena egiten da. Gastu hauek, orokorrean eta salbuespenak salbuespen, eraikinaren konponketa txiki, elektrizitatea, erre-gaia, telefonoa eta aretoen garbiketa gastuak barneratzen dituzte. Gainera, atal hauetako bakoitzerako udal langileek egiten dituzten lanen kostua gehitu beharko litzaieke.

Atsedeen toki (10.490,00):

Aretoaren mantenimendu gastuak eta erretiratuen jarduerak izango lirarteke atal hau osatzen dutenak.

Osasun zerbitzuak (9.500,00):

Hiru auzoetako mediku kontsultategien mantenimendu gastuak osatzen dute atal hau.

Herri Eskola (27.176,00):

Eskolaren mantenimendu gastuak osatzen dute atal hau ere.

Liburutegia eta kultur jarduerak (71.442,72):

Liburutegiko langilea, liburu eta aldizkariak, aretoaren mantenimendu gastuak alde batetik eta kultur ekin-tzak beste aldetik.

Herri Antzokia (18.955,00):

Aretoaren mantenimendu gastuak eta zine zerbitzua ematen duen enpresari ordainketa.

Kirolak (27.879,00):

Herriko Kiroldegi eta frontoiaren mantenimendu gastuak eta Kiroldegiko Kirol arduradunari ematen duen zerbitzuarengatik ordaintzen zaiona.

Festak (35.550,00):

San Martin, San Gregorio eta Aiako festetako gastuak hala nola herriko gainontzeko auzunetan urtean zehar egiten diren zenbait festa anto-laketetan ordaintzen dena.

2. SARRERAK

2.1. Zuzeneko zergak (153.464,00):

Atal honetan sartzen diren zergak eta beraien bitartez 2003an jasotzea espero ditugun diru kopuruak ondorengo hauek dira:

W Landalurren gaineko zerga (kontribuzioa) 8.915

W Hirilurren gaineko zerga (kontribuzioa) 47.789

W Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga 81.500

W Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga 3.000

W Ekonomia jardueren gaineko zerga 12.260

2.2. Zeharkako zergak (18.000):

Zeharkako zergetan, ekimen ezberdi-nak aurrera eramateagatik ordaindu be-harreko zergak aurreikusten dira. Ataungo kasuan, "Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga" bakarrik daukagu, eta kontzeptu honetan 18.000 eu-roko diru sarrera aurreikusi da.

24.000 EURO

JASOTZEA

ESPERO DA

BASO APROBE-
TXAMENDUETATIK

UDALAK

URARENGATIK

UR

KONTSORTZIOARI

ORDAINTZEN

DIONA

IA BIKOIZTU

EGIN DA BI

URTETAN

**LAGUNTZA
GARRANTZITSUA**

**LORTU DU
UDALAK
EUROPATIK**

GAUR EGUNGO

**UDALAREN
FINANTZA-
ZAMA
% 3,50EKOA**

DA

**2.3. Tasak eta bestelako sarrerak
(154.770,00):**

Atal honetan, zerbitzu ezberdi-
nengatik herritarrok ordaindu beha-
rreko tasak sartzen dira nagusiki, eta
horrez gain Udalak izan ohi dituen
beste sarrera batzuk ere bai, Iber-
drola eta Telekomunikazio eragileak
(Telefonica, Euskaltel) egiten dituz-
tenak adibidez. Hona hemen kanti-
taterik nagusienak:

wZabor bilketa tasa	43.110
wEstolderia tasa	22.320
wUdal hilerri tasa	12.000
wUdal ur-hornidura	60.000
wUdal kiroldegia	3.000
wHirigintza baimenak	4.000
wIberdrola	4.100
wTelekomunikazioa	3.000

**2.4. Transferentzia arruntak
(634.272,00):**

Herritarrok ordaintzen ditugun
hainbat zerga ez ditu Udalak jaso-
tzen, Foru Ondasunak baizik, eta ja-
sotako zerga horietatik Foru Aldun-
diak zati bat udalei zuzentzen die,
hori delarik Udalaren sarrerarik ga-
rrantzitsuena. Horrez gain atal ho-
netan sartzen dira ekimen berezieta-
rako Udalak beste instituzioetatik
jasotzen dituen dirulaguntzak ere.
Hona hemen garrantzitsuenak emai-
learen arabera sailkatuta:

Estatuak	
wItundu gabeko zergetako partaidetza	1.290
Eusko Jaurlaritzak	
wBake-Epaitegirako laguntza	1.022
wLiburutegirako laguntza ..	1.800
wGizarte Zerbitzuen finantzaketarako laguntza	5.200

Gipuzkoako Foru Aldundiak

wItundutako tributuetako partaidetza	617.000
wGizarte Zerbitzuen finantzaketarako laguntza	3.200
wKulturaren dinamizaziorako	600
wEskolaz kanpoko kirola dinamizatzeko	900

Besteak

wEtxez-etxeko zerbitzua jasotzen dutenak	2.600
wIrabazizko xederik gabeko erakundeak	600
wBestelakoak	60

**2.5. Ondare sarrerak
(30.083,00):**

Hemen hiru alor bereiz ditzakegu:
Lehenik, Udalak dituen diruak eman
ditzaketen interesak. Bigarren, Uda-
laren jabetzakoak diren baina beste
batzuk erabiltzen dituzten ondasu-
nen alojerak (errentak). Eta hiruga-
rren, baso aprobetxamenduetatik ja-
sotzen dena. Hona hemen 2003rako
aurreikusitakoa:

wAlokairuak (errentak)	73
wBaso aprobetxamenduak ..	24.000
wGordailuen interesak	6.010

**2.9. Kapital-transferentziak
(233.260,00):**

Kapitulu honetan, Udalak inber-
tsioetarako kanpotik lortzen dituen
laguntzak jasotzen dira, herri-era-
kundeetatik gehienetan eta batik bat.
Aurtengoan aurreikusitakoa San
Martingo bide berria egiteko Euro-
pako erakundeetatik, F.E.D.E.R.
fondoetatik, lortutako dirulaguntza-
ren zati bat aurreikusi da, berrehun
eta hogeita hamahiru mila berrehun
eta hirurogei (233.260,-) euro.

HERRIBIDE ZAHARRA

Ergoienatik San Gregoriora eta San Martindik Lazkaora

Duela urte batzuk San Gregoriotik San Martina bitartean Herribide Zaharra berreskuratze lanak egin ziren. Geroztik ibilbide honek erabilera handia izan du, eta horrek bultzatu du Udala, auzoz auzo oinezkoentzat ibilbide bat izateko helburuarekin jarraitzera.

Oraingoan, Ergoienatik San Gregoriora eta San Martindik Lazkaora bitarteko proiektuak egin ditu Basoinsa enpresak, Udalak eskatuta. Gune gehienetan lehengo bideak galduta badaude ere, proiektua egiterakoan lehen zirenak berreskuratzeari eman zaio lehentasuna, eta arrastorik ez edo akzesibilitate egokirik ez den tokietan erreka ondoan bide berriak egokitzea proposatu da.

Ergoienatik San Gregoriora bitartekoak 1.833 metro ditu eta erreka mendebaldetik joango da ibilbide guztian. Ergoienako zubitik, Urbirtarte sagardotegi atzetik, Gomenso-rosaletxeko zubitik, Iturritzako zubitara, eta handik presa ondotik San Gregoriora lehengo bidearekin lotura eginez. San Martindik Umarkira bitartekoak berriz 1.330 metro ditu eta Urkiola ingurura bitartean erreka mendebaldetik joango bada ere, hemen ur-neurketarako estazioan dagoen zubia gurutzatu eta ondoren errepidea ere gurutzatuta, honen ekialdetik Umarkira joango da, hemen Lazkao erdigunetik datorren ibilbidearekin lotura eginez.



GOMENSOROSALETXEA INGURUAN HERRIBIDEA ▲

Ergoienatik San Gregoriora egokitzearen aurrekontua 98.196 eurokoa da eta San Martindik Lazkaorakoa 64.713 eurokoa. Honi proiektuaren erredakzio eta zuzendaritza lanak gehitu behar zaizkio eta nola ez, lur-zoru eta bertan diren zuhaitzen erosketa.

Udala Ergoienatik San Gregoriora bitartekoarekin hasi da, hau bideratutakoan San Martindik Lazkaora bitartekoari heltzeko asmotan. Lehenik lur jabeekin adostasuna lortu eta ondoren obra-lanekin jarraituko da. Obra lanak adjudikatzeko deialdi publikora bi enpresa aurkeztu ziren, eta proposamenik onena Koldo Kerejeta S.L.rena izanik, berari adjudikatu ziztzaizkion lanak eta dagoeneko horretan dihardu.

•
AUZOS
AUZO
OINEZKO
IBILBIDE BAT
IZATEA DA
HELBURUA
•

JOXEMIEL BARANDIARAN KULTUR PARKEA

•
ATAUNEN
ETORKIZUNERAKO
ZUTABE
NAGUSIETAKO
BAT IZANGO DA
•

Aurrez jakitera eman zitzai-
zuen, Udalak K6 eta Xabide
enpresei agindua ziela Joxe-
miel Barandiaran ardatz hartuta egin
asmo den interpretazio zentroaren
proiektua. Urtebete luze lanean aritu
eta gero, abenduan aurkeztu zuten
proiektua Udaletxean. Proiektu hau
egiterakoan, bai taldeka eta baita ba-
naka ere, gaiarekin zerikusia izan ze-
zaketen elkarte eta pertsona ezberdi-
nekin izan dira elkarrizketak, gero
proiektua egiterakoan iritzi ezberdi-
nak kontutan izateko ahalegina egin
delarik.

Joxemiel Barandiaranen irudia,
nortasuna, lanak eta horrek euskal
kulturaren azterketan izan duen ga-
rantzia berreskuratu, aintzatetsi eta
ezagutaraztea izango da egitasmo
honen zeregina. Hori guztia, ikus-
pegi abangoardista eta unibertsalare-
kin egin nahi da, betiere Ataungo ga-
rapena modu jasangarrian eta
herritarren partaidetza oinarritzat
harturik, Ataun ezagutzera emateko
helburuarekin.

Gainera, inguruko sektore turisti-
koari bultzada bat eman nahi zaio,
honek ekonomiaren garapenean be-
rebiziko garrantzia izango duela uste
baita. Horrela bada, turismoaren eta

kulturaren alorrean politika integrala
egin nahi da.

Kultur proiektu dinamikoa, garai-
kidea, herriarekiko lotua eta parte-
hartuzkoa izatea da helburua. Apus-
tua joera berrietara irekita egongo
den zentro bat sortzea da. Zentro
hori, bere esparruan erreferente di-
bulgatzailerik eta zientifikoa izatea da
helburua.

Bi jarduera-eremu izango ditu egi-
tasmo honek. Bata zientziaren ere-
mukoa, ikerketan oinarrituko dena,
zehazki ikerketa antropologiakoan,
etnografikoan... betiere euskal kul-
tura ardatz nagusi hartuta; eta bes-
tea, dibulgatzailea, hedatzailea... ai-
siaren eta hezkuntzaren ikuspegitik
kultur turismoa hedatzea izango du
helburu, kultur eta natur baliabidee-
tan oinarrituta eta batez ere Joxemie-
lek horrenbeste landu zuen euskal
mitologia jorratuz.

Kokamen fisikoari dagokionean,
Murkondo auzoa izango da erdigu-
nea, Ataun eta Aralar bere osotasu-
nean jorratuko badira ere. Sara etxea
bere horretan errespetatuz, alde ba-
tetik harrera gune eta erakustoki
izango den interpretazio zentro iza-
teko Aldakotxo baserria eta bere on-



◀ MURKONDO AUZOA

•

**BI JARDUERA-
EREMU
UZTARTUKO DITU:
IKERKETA ETA
ZABALKUNDEA**

•

doan eraikiko litzatekeen eraikin berri bat planteatzen dira. Bestalde, ikerketa gune Larruntza errota ego-
kitzea proposatzen da. Horrez gain, Murkondo auzoko eremu ezberdi-
nak gaikako parke bat eratzekeo pro-
posatzen dira.

Proiektu honetan, zentro honen kudeaketarako Fundazio bat sortzea proposatzen da, osaketa eta antola-
keta irizpide batzuekin. Era berean bai eraikuntza eta baita kudeaketa-
ren azterketa ekonomiko bat egin da, bertan ekimen honek urtean 21.464 bisitari izan ditzakeela aurreikusitako delarik.

Proiektua bere osotasunean gauzatzeak 7.104.697 euroko aurre-

kontua izango luke, baina begi bistan da, hau faseka burutu beharko litzatekeela eta finantziario iturriak lortzen diren heinean.

Proiektua aurrera eramateko 5 urtetako plangintza bat proposatzen da, eta Udalak 2003an proiektua bera zabaldu, honen inguruan ahalik eta adostasun handiena lortu eta finantziario iturriak lortzen hasteko asmoa agertu du.

Proiektu honen erredakzioa 61.000 euro kostatu da, eta honi aurre egiteko Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak 15.000 euroko dirulaguntza eman dio Udalari eta Kultura Sailak beste 21.000 eurokoa.

SAN MARTINGO ERDIGUNEAREN BERRESKURATZEA



ETXEBIZITZAK ERAIKIKO DIREN GUNEA ▲

Ekimen ezberdinak biltzen ditu egitasmo honek eta aurrez ere beste Udalberri batzuetan eman izan da gai honen berri. Eki-
men ezberdin horien garapena zer-
tan den azalduko da ondorengo le-
rroetan.

Etxebizitzak

San Martingo erdigune den Bika-
rio-etxetik Artzubira bitartean etxe-
bizitzak egitea da helburua. Barne
Erreformatarako Plan Berezia onartu

zen lehenik, urbanizazio proiektua
ondoren eta birpartzelatze proiektuak gero.

Jabekide eta sustatzaile ezberdinen
arteko negoziaketak luzatzen ari zi-
rela ikusita, Udala bera hasi zen le-
hen pausoak ematen, aukera hau au-
rreikusia bai zegoen Plan Berezia
onartu zenean.

Lehen lehenik, bertan alokeran
bizi zirenei beste bizileku batzuetara
joateko aukerak eskaini eta beraiekin
hitzarmenak izenpetu ziren. Hau

•

**ETXE ZAHARRAK BOTA DIRA
ETA EPE LABURREAN BERRIAK
EGITEN HASTEKO
ASMOA DA**

•

egin eta gero, botatzea aurreikus-
ten zen etxe bakoitzaren balioa
ordaindu zitzaion jabe bakoitzari.
Gastu hauei aurre egiteko, unitate
horietan jabekide bakoitzak duen
portzentajearen arabera diru-or-
daina egin zezaten eskatu zien
Udalak, eta horrela bideratu da.

Orain berriz, Urbanizazio lane-
kin hasi da Udala. Artzubitik Bi-
kario-etxera bitarteko bi gun-
erietan, etxeak egiten hasi aurretik
egin litezkeen urbanizazio lanak
egingo dira. Deialdi publikoa
egin eta gero Construcciones Ipa-
rragirre-ri adjudikatu zaizkio lan
hauek. Lehen fase honen aurre-
kontua 109.630 eurotakoa da eta
jabekideek ordaindu beharko
dute dagokien portzentajearen ara-
bera.

•

**U HOLDE ARRISKUA
NABARMEN
JAITSI DA
SAN MARTINEN**

•



BIDARTEKO ZUBIA ▲



ELIZA ATZEKO PASABIDEA ▲



ALTZANIPEKO PASABIDEA ▲



UBARRIKO ZUBIA ▲

SARRERA-IRTEERA HAUEK EGITEAK, SAN MARTINGO PLAZA

BERRESKURATZEA AHALBIDERATUKO DUTE

Honekin batera, Paskual iturritik Juanikoenea bitartean espaloï bat eraikiko da, gaur egun etxe-ateek errepidera ematen dute eta. Honen aurrekontua 52.460 eurotakoa da.

Lan hauek egin eta gero etxebizitzaren eraikuntzarekin jarraitzea da helburua.

Uholdeetatik babesteko egitasmoa

Herritarrok ikusi ahal izan duzuen bezala, San Martingo auzunea uholdeetatik babesteko obra-lanak amaitzeaz daude. Agauntzak 220 m³/segunduko ur jaitsi zezakeen lehen zegoen moduan, eta orain berriz 315 m³/segunduko. Modu honetan nabarmen jaitsi da San Martingo auzunean genuen uholde arriskua.

Aipatzekoa da, egin diren zubi berriak bai ingeniariaritzaren eta baita arkitektura aldetik ere erreferente direla.

Obra lan hauen aurrekontua 2.189.250 eurotakoa zen eta obrak amaitu eta likidapena egitean jakinaraziko da zenbateko kostea izan duten.

Mediku etxetik Intxaurrendora bide berria

Mediku etxetik Intxaurrendora bitarteko bidea eta azken honen ondoan autoentzako aparkalekua martxan dira. Injelan etxeak egin zuen proiektua eta beraren zuzendaritzapean Contrucciones Donostik egin ditu obra-lanak, hau izan bai zen Udalak eginiko deialdira aurkeztu zen enpresa bakarra. 406.499 euro-

**DIRULAGUNTZA EZBERDINEZ
BALIATZEN ARI DA UDALA
EKIMEN HAUEK AURRERA
ERAMATEKO**

tan adjudikatu zitzaion eta 412.644 eurotan likidatu da, izan diren ezus-teko batzuk direla medio.

Kostu honi proiektu erredakzio eta zuzendaritza, lur erosketa eta antzeko koste batzuk gehitzen badizkiogu, ekimen honen koste osoa 536.380 eurotako izan da. Honi aurre egiteko Europear Batasunetik 225.000 euroko dirulaguntza jasoko du Udalak Foru Aldundiko Ekonomia Saila bitarteko.

Bide berri honen helburua ez da errepide nagusia ordezkatzea, baizik eta Intxaurrondo eta Ubarrieta bitartean bizi direnek autoz sarrera-irteerak herriko plazatik egin ordez Mediku etxe eta Ubarritik egitea. Horrela posible izango da, San Martingo plaza berriro herritarron elkargune bilakatzea, orain 30 urte zen bezala.

**Altzanipe eta Lizardi inguruan
aparkalekuak**

Gune honetan bidea nahiko estu gelditzen da autoak bi aldeetan aparkatuta egoten direnean. Lehen egin ziren urbanizazio proiektuetan mendi aldea aparkaleku bezala aurreikusi ez bazen ere, egunerokotasunak horren beharra badela erakutsi du. Horri irtenbide bat eman nahian, Altzanipe eta Lizardi parean mendiari zati bat jan egingo zaio bertan autoek ilaran aparkatu ahal izateko. Lan hauen aurrekontua 30.000 euro ingurukoa da.



▲ MEDIKU ETXETIK INTXAURRONDORAKO BIDE BERRIA ▲



▲ APARKALEKUAK EGOKITUKO DIREN GUNEA ▲

AIA ETA SAN GREGORIOKO PLAZEN URBANIZAZIOA



AIAKO PLAZA ▲

Hiru auzoetako plazen urbanizazioa egiteko du Ataunek, eta Arau Subsidiarioetan auzo bakoitzaren garapena zehaztu eta gero, lan hauei heldu die Udalak, ekonomikoki posible duen heinean pausoak eman asmoz. Oraingoz, Aia eta San Gregorioko plazekin hasi da lanean.

Aiako kasuan, plaza urbanizatzea bezain garrantzitsua da aparkaleku arazoari irtenbide bat ematea, hau ematen ez den bitartean plaza bera baita aparkaleku. Zentzu honetan bi proiektu enkargatu ditu Udalak. Batetik, Felipenea eta Erroipe bitartean, errepidez bi aldeetatik aparkalekuak



▲ APARKALEKUAK EGINGO DIREN GUNEA

•
AIAN
APARKALEKU
ARAZOA ERE
KONPONDUKO
DA
 •

egokitzeko proiektua. Hau Injelan etxea ari da egiten. Horrez gain, plaza beraren urbanizazioa. Ezkurdiotegitik Erroipe bitarteko gunea da plaza bezala urbanizatuko dena, errepideak ere gune horretan plaza trataera izango duelarik. Hau da, autoak plazatik pasa beharko dira eta ez oinezkoak errepidetik Erroipera hurbiltzeko. Oinezkoen lehentasuna eta segurtasuna da helburua. Proiektu hau Uslan arkitektura enpresari enkargatu dio Udalak.

San Gregorioko plazak, Aiakoak eta San Martingoak ez bezala, ez du errepide arazorik. Elkargune eta frontoi aurrealdea izango da plaza eremua, eta Arau Subsidiarioetan aurreikusi den bezala, pinua bitarteko gunek bi erabilpen izango ditu: egunerokotasunean aparkaleku eta ekitaldi berezietan plaza. Proiektu hau ere Uslan etxeari enkargatu dio Udalak.



SAN GREGORIOKO PLAZA ▲

LARRUNTZA ERROTA IKERTU ETA EROSI DA

LARRUNTZA
ERROTAREN
IKUSPEGI
OROKORRA



1408KOA DA
ERROTAREN LEHEN
AIPAMENA

Ataungo ondarea berreskuratu eta zaindu nahian, Larruntza Errota eta bere inguruan ekimen ugari bultzatu ditu Udalak azken urteetan.

Auzolandegiak egin ziren 1998 eta 1999an. 2000n Errotatxoren zati bat berritu zen. 2001ean Aranzadi Zientzia Elkarteari ikerketa arkeologikoa egiteko agindu zitzaion eta azkenik iaz, 2002an

Larruntza multzo guztiaren erosketa burutu da.

Ikerketan, Errota, Errotatxo eta inguruaren txosten historikoa eta lanabes, tresna eta dagoen balioko gauza guztien inbentarioa egin da. Errota Nagusia aipatzen den lehen dokumentua 1408. urtekoa dela kontutan izanik, pentsa sei mende hauetan zenbat gauza gerta ote diren. Epe luze honetan,



▲ ERROTATXOA

alabaina, ez dira egun aurkitzen diren produkzio-gune guztiak aldi batera funtzionamenduan egon, historian zehar bakoitzaren garapena eta erritmoak oso desberdinak izan dira.

Dirudienez, Errota Burdinola baino zaharragoa da. Errotaren lehen aipamena 1408koa da eta burdinolarena 1489koa. Era berean Burdinolaren bizitza motzagoa izan zen, 1697 aldera erabiltzeaz utziko dutelarik, nahiz eta Errota eta Errotatxoak martxan jarraitu. Errotatxoak bere erabilpenarekin jarraituko du XX. mendearen hasiera arte. 1929an turbina eraikiko da eta hortik aurrera zereginenez aldatuko da, ehotzea gelditu ondoren makinaria, aroztegi eta zerrategirako egokituko dutelarik.

Era honetako datuak eta sei mende hauetan herrian izandako hamaika gorabehera ere azaltzen dira

multzo honen inguruan, Markesarekin izandako borrokak, herritarren arteko liskarrak, izandako desengai- nuak, ... Benetan Ataungo historia eta gure arbasoen bizimodua gertutik ezagutzeko aukera ederra eskaintzen du ikerketa honek. Lan honen aurkezpena 2001eko abenduaren 27an egin zen San Gregorio Elkar- gunean.

Honelako historia duen herri on- darea eraberritzeko helburua bere egin du Udalak eta hasitako lanekin aurrera jarraitu aurretik Larruntza multzo osoa erosi zaio Garaialde fam- iliari 44.866 eurotan. Une hone- tan Errotatxoko zerrategia eta kanal guztiaren eraberritze proiektua az- tertzen ari da Udala. Bestalde Joxe- miel Barandiaran Kultur Parkearen proiektuan ere funtsezko eginkizuna eman zaio Larruntza multzo honi, etorkizunean oso elementu garran- tzitsua izango delarik.

•
**ARANZADIK
EGIN DITU
IKERKETA
HISTORIKOA ETA
LANABESEN
INBENTARIOA**
•

UDALETXEAREN BERRITZE LANEN 3. FASEA



Udaletxea berritzea aurreikusten zuen proiektua orain dela 19 urte inguru idatzi zen. Proiektu horretan lanak 3 fase edo alditan egitea aurreikusi zen eta lehen fasea, teilatua eta ganbara egitea, 1984 urtean egin zen; bigarren fasea, gainontzeko barruko lanak, 1988 urtean hasi eta 1990 urtean bukatu ziren eta 3. fasea egiteke gelditu zen.

3. fase honi heltzeko garaian, Udaletxea, herritar guztiak inolako arazorik

gabe hel zitezen moduan jartzea, hau da, irisgarritasun (akzesibilitatea) osoa izateko moduan jartzea eta San Martinen herriko komunaren beharra izan ziren kontutan hartu ziren ideia nagusiak. Eta hori horrela izanik, bi ideia horiei erantzuna emango zion proiektua egiteari ekin zitzaion.

Udaletxea herritar guztiak heltzeko moduan jartzeko igogailu bat jarriko da, behetik ganbararaino iritsiko dena, eta Udaletxeko sarreraren zeuden bi eskailera mailak ere kendu egingo dira, behe solairuko zorua beherago eramanez. Modu honetan, gurpildun aulkian dabilenak ere ez dute inolako eragozpenik izango Udaletxeko edozein aretotara iristeko.

Bestalde, garai batean alhondiga eta noizbait herriko komunak izandako lekuan, berriro ere herriko komunak egingo dira. Hauek ere kanpotik barrura sartzeko inolako koska edo eskailera mailarik gabe, eta gaur egun irisgarritasun arauak ezartzen dituzten baldintzak betez, edonork izan dezan komun hauek erabiltzeko aukera.

Proiektuaren aurrekontua 229.690 eurotakoa da, eta proiektua lehiaketara atera ondoren, Construcciones Trati, S.L.ri esleitu zitzaion. Lanak 2002ko abenduan hasi ziren eta 2003ko apirilera amaituta izatea aurreikusten da.

BI ETXE ENKANTERA

Urtarrilaren 20an eginiko Udalbatza-
ren osoko bilkuran, Udalaren jabe-
tzakoak diren bi etxe enkantera ater-
ratzea erabaki zuen Udalak. Arrondo
auzoan kokatua dagoen Kamiñoa etxea ba-
tetik eta Aiako Eskolaetxea bestetik.

Enkante honetan partehartzeko, babes
ofizialeko etxebizitzak erosteko bete behar
izaten diren antzeko baldintzak daude Uda-
lak onartutako baldintza pleguan. Alde ba-
tetik, partehartzeko ezinbestekoa izango da
azken bi urteetan Ataunen erroldaturik ego-
tea eta etxebizitzarik jabetzan ez izatea. Bes-
talde, salmenta egin eta ondorengo hamar
urteetan Udalak tanteo eta atzera egite es-
kubidea izango du, gehienezko prezioa sal-
menta bitartean pasako diren urteetan
izango diren KPI-ren arabera gaurkotua
izango delarik. Modu honetan etxebizitzarik
ez dutenei eman nahi zaie etxe bat eskura-
tzeko aukera eta bestalde espekulatuzaile izan
daitezkeen eskaintzei atek itxi.

Etxe hauen balioa zehazteko, horretan
aditua den teknikari bati eskatu zion tasazioa
Udalak, eta lan horretan oinarrituta ondo-
rengo hauek izan dira lizitazio-oinarriak:
Aiako Eskolaetxearena 55.951,98 euro eta
Kamiñoarena 80.312,89 euro.

Otsailaren 11an amaitu zen proposame-
nak aurkezteko epea eta jasotakoak aztertu
ondoren erabakiko du Udalak erostunak
nortzuk izango diren.

**BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN
ANTZEKO BALDINTZAK
JARRI DITU UDALAK**



▲ AIAKO ESKOLAETXEA



▲ KAMIÑO

HERRI BASOETAN MOZKETA ETA ALDAKETAK

Gipuzkoako Foru Aldundiaren batera darama Udalak herri mendien ustiaketa, azken hamar urteetan 750 mila euro inguru inbertitu direlarik zeregin honetan. Azken hilabeteetan eginikoak laburbilduko dira ondorengo lerroetan.

Muskin matarrasa eta segidan aldaketak

Muskiko herri mendietako bi zati desberdinetan burutu den egur ustiaketa jadanik amaituta dago. Momentu honetan pistak lehen zeuden bezala uztea bakarrik falta da. Aurrera eraman den erabateko mozketa hau intsinis pinuarena izan da eta guztira 16,5 hektareako azalera izan du. Deialdi publiko bat egin eta gero, 147.398 euroko eskaintza egin zuen Central Forestal enpresari lan hau egiteko ardura eman zitzaion, eta bera izan da burutu duena. Aurtengo neguan, lur-eremu horietan intsinis pinua landatuko da berriro 44.245 euroko aurrekontuarekin.

Amunaringarakoa inguruko sutea

Amunaringarakoa baserriaren gainaldeko lur zatian pasa den maiatzean

sutea izan zen. Ondorioz, Lazkaorekin muga egiten duten lurretan, 10ren bat hektarea pinu erre ziren.

Kiskali ziren 10 hektareatik, gutxi gora-behera 4 hektarea herri-lurretan izan ziren eta gainontzekoa partikularren lurretan.

Erretako arbolak bota eta eremu hori garbitu ondoren, intsinis landaketak egingo dira berriro aurtengo neguan 11.892 euroko aurrekontuarekin.

Arrikolatza berreskuratu asmoz

80. hamarkadan Arrikolatza lotu egurra eman zen eta ondorioz gunehorretan bertako artadia guztiz kalte-tuta gelditu zen, gehiena matarrasean bota zen eta inolako neurrik hartu gabe berez berreskuratzea ematea zaila izanik, geroztik gunehorretan ganadua ibili izanak erabat oztopatu du bertako landareak indartzea.

Egoera honekin kezkatuta eta Arrikolatza landaretza, eta bereziki artadia berreskuratu asmoz, Udala eta Foru Aldundiko teknikariak zer pauso eman aztertzen ari dira, eta epe labu-

SUTE EREMUA
GARBITU ETA
BIRLANDATZEARI
EKIN ZAIO



▲ IREKITAKO PISTA

rrean helburu hori lortzeko tekni-
koki egokiak iruditzen diren pausoak
ematen hasiko dira.

Pista berriak

Amundarain baserriaren eta Lasar-
teko lepoaren artean hiru pista berri
egin dira. Guztira 1.300 metro bide
egokitu dira, inguru horietako herri
lurretan pinu bakanketak egin ahal
izateko. Zentzu honetan markaketak
eginak daude eta laster hasiko dira
mozketak.

Aitzarten bakanketak

Aralegiko zelaitik Aldasbarrena bi-
tartean doan bidean larizio pinuaren
bakanketa edo entresaka jadanik
amaituta dago. Momentu honetan

egurra ateratzea besterik ez da falta.
Lan hau Central Forestal etxeak bu-
rutu du. Guztira 50 hektarearen
egur-ustiaketa egin da.

Bestalde, Aitzarten 42 hektareatan
Abeto Douglasaren bakanketa egin
asmoz markaketak eginak daude eta
laster hasiko dira ustiaketa lanak.

**750 MILA EURO INBERTITU
DIRA AZKEN 10 URTEETAN**

ZAHARKINAK

BILKETA
LANETAN



HERRITARREK
IZANIKO
PARTEHARTZEA
ESKERTU NAHI
IZAN DU
UDALAK

A taungo Udalak garrantzi handia eman izan dio herriko ondareari. Arrazoi honegatik bultzatu eta babestu izan ditu Laruntza Errota berreskuratzeko ekimena, trikuharrien seinaleztatzeko berriak, toponimi mapa, Ataun aztergai beka,... baina aspalditik zuen buruan asmo garrantzitsu bat: garai bateko bizimoduarekin lotutako adierazgarri izango zen erakusketa bat antolatzea. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi Zientzia Elkartek hasieratik bat egin zuten ideia honekin eta beraiekin elkarlanean aurrera eraman ahal izan da.

Bi helburu izan ditu erakusketa honek. Lehena, herrian dagoen etnografi erako ondare partikularren (baserriko lanabes, tresneri, altzari

zahar, argazki, dokumentu, eta mota horretako gauzak) katalogo bat egitea da. Bigarrena, baserri edo etxeetan dugun ondarearen balioaz herritarrok jabetzea eta mantentzea. Ez dira traste zaharrak. Garai bateko bizimoduaren testimonio dira eta zainduak izan daitezen herritarren sentsibilizazioa suspertu nahi izan da.

Proiektua Fermin Leizaolaren zuzendaritzapean egin da, eta herritar asko izan dira laguntza eskaini dutenak. Batzuk beraiekin etxeetako ateak ireki eta gauzak utziz eta beste batzuk garbitze eta antzeko lanak eginez. Aipatzekoa da baita ere Joxe Bikuña herritarrek eginiko koordinatze lana. Denei eskerrak luzatu izan dizkie Udalak, denen artean egin baita posible erakusketa hau.



▲ GARBITZE LANETAN

2001eko abenduaren 20ean eta martxoaren 15ean eginiko sentsibilizazio eta azalpen hitzaldiekin eman zitzaion hasiera. Araketa berriz maiztaren 20tik ekainaren 6ra bitartean egin zen herriko 90 baserri edo etxetan. Bildutako 2.000 pieza baino gehiagorekin ekainaren 16tik uztailaren 14ra bitartean egin zen erakusketa Auzoeta Udal Kiroldegian. Menditik baserrira sortabelarrak jais-teko erabiltzen zen kablearekin berezitasun bat eman nahi izan zitzaion erakusketari.

Guztira 2.000 ikusle pasa ziren erakustalditik eta 12.000 euroko aurrekontua izan du ekimenak.

2002ko abenduaren 17an Ataungo Udaletxeko areto nagusian eta Barandiaran Kulturaldiaren barnean antolatatu zen ekitaldian, Aranzadi Zientzi Elkartearen izenean Fermin Leizaolak eta bere taldeak, erakusketaren memoria entregatu zioten Udalari. Guztira 1.318 fitxa, argazki eta krokisekin horniturik, 280 diapositiba eta 2 CD ROM digitalizatu diren argazki guztiekin. Benetan herriko ondarearen testimonio harrigarria gelditu zaigu etorkizunerako.

2000 IKUSLE PASA ZIREN ERAKUSTALDITIK



▲ ERAKUSKETA

AMAZONIAURREKIN BAT ATAUNDARRAK



HAUR TXINAR HONEK
ATAUNDARRON
LAGUNTZA IZANGO DU

Ataungo udalak bere aurrekontuaren % 0,7a garapen bidean doazen herrialdeekiko elkartasuna adieraziz, zenbait talde eta erakundek herrialde hauen garapena bultzatzeko gauzatzen dituzten proiektuak babesteko erabiltzen du.

2001eko deialdira 6 proiektu aurkeztu ziren eta Udalak horretarako zituen 6.406 euro ondorengo bi erakunderen artean banatzea erabaki zuen: batetik Oscar Romero erakundeari, Salvadorren izandako lurrikararen kaltetuei etxeak eraikitze eta bestetik Medicus Mundi elkarteari, Ekuadorreko Amazonian bertako jendea formatzeko, gero hauek pestiziden erabilpenaren kontrolak eraman ditzaten.

2002ko deialdira 11 proiektu aurkeztu ziren eta helburu hori zuten

6.911 euro, bi erakunderen artean banatzea erabaki zen, Medicus Mundi eta Ropka Euskadi erakundearen artean hain zuzen ere.

Medicus Mundik aurkeztutako proiektuak badu jarraipena 2001 urtean aurkeztutako proiektuarekin. Proiektu honek Ekuadorreko Amazoniako petrolioaren ustiakuntzaren aurrean, bertako jendea kontzientziatzeko eta hezitzeko helburua du. Beste taldeak aurkeztutako proiektuak berriz, Ropka Euskadik, Txinako Quinhai probintzian, gurasorik gabeko umeei, hezkuntza, janaria eta etxea ematea du xede.

Esan behar da proiektu guzti hauek bertako jendearen kolaborazioarekin daramatzatela aurrera eta batez ere bertakoen heziketa dutela helburu nagusi, gero nolabait ere beraien izan daitezen egoerari aurre egingo diotenak eta besteei lagunduko diotenak.

**AURREKONTUAREN %0'7A
GARAPEN PROIEKTUETARA
ZUZENTZEN DU UDALAK AZKEN
URTE HAUETAN**

IGERILEKUA AZTERGAI

Urteetan zehar eztabaida gai izan dugu igerilekuaren beharra. Uda inguratzen hasten denean herritar ugari dira behar honen gabezia faltan bota edo eta beharra ikusten dutenak. Hau kontutan izanik, Udal honek aukera desberdinak landu ditu erantzun egoki bat aurkitu nahian eta horien berri emango zaizue ondorengo lerroetan

Errekako alternatiba

Errekan bainurako putzu bat egokitzea interesgarri izan zitekeen, baina planteamendu hau gaur egun baztertu beharrean aurkitu da Udala, Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzak horretarako baimenik ez diola emango adierazi izan dio eta.

Igerilekua

Errekako alternatiba baztertu ondoren, igerilekua egiteko 3 aukera ezberdin aztertu dira Udalean: Baztarrikako zelaia, Bitorrene-Ermita bitarteko zelaia eta Gabilleneko zelaia.

Baztarrikako aukera da hiru aukera hauetan garestiena, azpiegitura guztiak eraiki beharko liratekeelako, urbanizazioa, aparkalekuak, aldagelak, igerilekua e.a... Aukera honen aurrekontua 1.925.000 eurokoa da eta kontutan izan behar da gaur egun Arau Subsidiarioetan lur eremu horretan ez dagoela horrelako ekimenik aurreikusita.

Bitorrene-Ermita bitarteko zelaia aukera merkeagoa da, kiroldegiko aparkalekua aprobetxatuko litzatekeelako eta urbanizazio lan gutxiago duelako. Honen aurrekontua



1.675.000 euro ingurukoa izango litzateke.

Gabilleneko zelaia da hiru aukera hauetan merkeena, kiroldegiko aparkalekua aprobetxatzeaz gain aldagelak ere aprobetxatu ahal izango liratekeelako. Baina merkeena izanik ere 850.000 euro inguruko aurrekontua izango luke. Aukera hau gehiago landu da, aurreproiektu bat ere egin delarik. Igerilekua hiru gune ezberdinekin pentsatu da: Igerirako gunea, helduentzako jolasgunea eta haurrentzako. Bere inguruan nahiko belar-eremu zabala geldituko litzateke.

Eraikitze kosteez gain, kontu izan behar dugu Udalak 24.000 euro inguru beharko litzuzkeela urteko mantentzerako.

Azterketa hau egin eta Udalaren bitarteko ekonomikoak zein diren ikusita, igerilekua baino lehentasun gehiagoko egitasmoak badirela eta gaur gaurkoz ekimena bere horretan utzi du Udalak, aurrerago bideragarritasuna lantzen jarraitzeko asmotan.

•

**ERREKAKO
PUTZUAREN
ALTERNATIBA
BAZTERTU EGIN
BEHAR IZAN DA**

•

ATAUNEK ARAZOAK DITU BASERRI BIDEAK EGOKITZEN JARRAITZEKO



AURTEN ASFALTATU
NAHI DEN BIDEA

Jakina da Ataungo Udalak Goimen erakundearen bidez Foru Aldundiak bideratzen zituen dirulaguntzez baliatuz egokitu dituela baserri bide gehienak.

Aiaugalde Txikira 2001ean ireki zen bidea izan zen dirulaguntza hauez baliatuz egin zen azkena. 11.660 euroko kostea izan zuen, Goimenek 6.610 euro jarri zituen, Udalak 2.525 euro eta 2.525 euro bertakoek.

Geroztik baserri bideak diruz ez laguntzeko erabakia hartu du erakunde honek, nekazal garapena bultzatzeko lehenetasun gehiagoko ekimenak badi-rela eta. Erabaki honen ondorio Ataun oso egoera larrian gelditu da, herrian dugun 60 kilometro inguruko baserri bide sarea berak bakarrik mantentzeak jasangaitza zaion kostea du eta.

Goimenen irizpideak gutxietsi gabe, Ataungo Udalak baserri bideek ere la-

guntzak jaso ditzaten eskatu izan du behin eta berriz. Zentzu horretan 2002rako Udalak aurkeztutako proiektuek ez zuten laguntzarik izan, eta 2003rako ondorengo proiektu hauek aurkeztu ditu: Aitzarterako bidea asfaltatzea (Aralegiko bidegurutzetik Bedamako bidegurutzera bitartean), Andra-leizetarako bidean lur-jauzia kentzea eta Iturritxo-Sorotxoeta-Iturriotz-erako bidean eskoilera. Goimen, Ataunek duen arazoari irtenbide bat ematen ahaleginduko denaren esperantza du Udalak.

Bestalde, bideak egoki mantentze ahaleginean, hainbat bide bazter garbitu dira desbrozadoraz: Lauztiazpitik Igartzate baserrira; Troskaetatik Amundarain baserrira, eta hemendik Kobadegira; Maizko bidea; Medikuetetik Ubelarain baserrira; Imatzene baserritik Aralegi baserrira; Agerretik Urrestarazu baserrira; Sorozabal eta Bordagazteluko baserrietako bidea; Dorronsoro eta Lizarburu baserrietako bidea; Juananea baserritik Txuloko baserrira; Artaditxuloko bidea; Iturritxo, Iturriotz eta Sorotxoeta baserrietako bidea; eta Marumendiko bidea. Aurki berriz, Teletxeberrietik Muskiko bordara doan bidea egingo da.

Baserri bideen gaiaren inguruan, aipatzekoa eta eredu ere bada, Otamots zeharreko bizilagun eta inguru horietako lur-jabeak, Azaolatik hasi eta Kalakasenekoko belartxoraino bitartean kunetak garbitzen hiru egunez auzolanean aritu izana.

GOIMENEK

BASERRI

BIDEETARAKO

DIRULAGUNTZAK

EMATEARI

UTZI EGIN DIO

UDAL BILTEGIA INDUSTRIALDEAN

Aurreratu zen bezala, Zubiko-eta industrigunean Udal beharretarako biltegi bat eraiki auzoz zebilen Udala. Industrigune horretan eraiki daitekeenaren %10a Udalarik dagokio legez, hau da 702,8 metro karratu. Udalaren beharretarako metro gutxiagorekin nahikoa dela ikusita, ondoko partzelako jabearekin trukaketa bat egitea erabaki zuen Udaltzatzen 2002ko martxoaren 13an. Erabaki hori gauzatzeko hitzarmen bat izenpetu da trukaketa egingo den Tapia instalazio elektrikoak S.L.-rekin.



UDALAK 350 METROKO PABILIOI BAT IZANGO DU INDUSTRIALDEAN

Honetan datza aipatu trukaketa hori: Ataungo Udalak 702,8 metro karratuko lur-zorua emango dio Tapia instalazio elektrikoak S.L.-ri, honen balioa 120.383 eurotan finkatu delarik. Era berean, Tapia instalazio elektrikoak S.L.ak 350 metro karratutako eraikitako pabiloi bat emango dio Ataungo Udalarik, honen balioa 168.283 eurotan finkatu delarik.

Modu honetan Udalak 350 metro karratuko pabiloi bat izango du, eta jasoko duenaren balioa emango duena-

rena baino handiagoa denez, pabiloia amaitu eta jasotzerakoan 47.900 euro ordainduko dizkio Ataungo Udalak Tapia instalazio elektrikoak S.L.-ri.

Hitzarmenean egutegi bat ere finkatuta gelditu da eta horren arabera 2003 amaierarako pabiloi hori eskuetan izatea espero du Udalak. Bitartean, lehendik Udalak biltegi bezala erabili izan duen Arinberriaga auzoko Izagirre etxea erabiltzen jarraituko du. Horretarako, Udalak Apalategitarrekin hiru urterako izenpetuta zuen eta pasa den azaroan amaitu zen akordioa beste urtebeterako luzatu da. Udala eskertua dago Apalategitarrek izandako prestutasunarekin, erraztasunak emateaz gain, 4 urte hauetan Izagirre etxea erabiltzeagatik ez diote alokairurik kobratu eta.

▲ UDAL-BILTEGIA
ERAIKIKO DEN
GUNEAK

BATASUNAREN ILEGALIZAZIOAREN AURKA

Batasuna legez kanpo uzteko helburuarekin Espainiar Gobernua alderdi politikoen legea egin eta onartzeari ekin zionean, 2002ko maiatzean Batasunak ekimen horren aurka mozio bat aurkeztu zion Udalbatzari ondorengo ebazpen puntu hauekin:

1. Indar politiko guztiek Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturean berdintasun baldintzetan parte hartzeko eskubidea eta beharra dutela. Beraz, aukera politikoen aniztasuna errespetatu behar da:
2. Ez Batasuna ezta inolako indar politikorik ere, ezin direla ilegalizatuak eta jarduera politikotik alboratuak izan, Euskal Herriaren demokrazia eta euskal herritarron eskubide zibil eta politikoak lortzeari ekiten diotenak ezabatuz, alderdi batzuen jokararen moldaketa dela medio.
3. Euskal Herriko gainerako antolakunde politikoekin berdintasunean parekatuz, Batasunaren

partehartze politiko osoa ziurtatu ahal izateko, beharrezko ekintza guztiak gauza ditzan.

4. Mozio proposamen hau, helaraziko zaie: Botere Judizialaren Independentziarako Errelatoreari (Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordekoa); Adierazpen Askatasunerako Errelatoreari (Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordekoa); eta Europako Giza-Eskubideen Epaimahaiari.

Mozio hau aztertu eta Euskal Herrian bizi dugun egoeraz iritzia mahairatu eta gero, Udalbatzak aho batez onartu zuen, modu horretan Batasunaren ilegalizazioaren aurkako jarrera hartuz.

**AHO BATEZ HARTUTAKO
ERABAKIA IZAN DA**

bi hitzetan

Oteizaren "zentauroa" Ataunen

Errepidea eta oinezkoak

Karteldegia

Atsedeen Toki zabalik

Goierri beheko industrialdea S.A.

Nitxo berriak hilerrietan

Herriko elkarteei laguntzak

San Gregorioko parkea

Otso festa eta Barandiaran Kulturaldia

www.ataun.net

Argazki Lehiaketa

Ataun aztergai beka

Telebista reemisorak

Asfaltatze lanak

OTEIZAREN "ZENTAUROA" ATAUNEN

Jorge Oteizaren "Zentauroa" eskultura lana gehitu nahi izan du Ataungo Udalak, Joxemiel Barandiaran eta Euskal Mitologiaren inguruan egiten ari den proiektuari.

Irudi honekin, Oteizak, bat egin nahi izan du ataundar maisu unibertsalaren oroimenerako geldituko den asmoarekin. Mezu hau bidali zion eskulturagileak udalari bere nahia agertuz eta eskerrak emanez:

*Atsegin handia da
niretzako
Ataungo herriak
nire eskultura
bat onartu izana
Joxemiel Barandiaran
maisua
omenez,
Euskal talde-oroimenaren
ikurra.*

Jorge Oteiza.



Eskulturaren inaugurazio eguna, 2002ko abenduaren 21a aukeratu zen. Barandiaran hil zeneko 11. urtemuga eguna. Herritarrez gain bere iloba Pilar Barandiaran ere bertan izan zen. Ekitaldian, Jesus Altuna, Barandiaran Fundazioko Presidenteak, Jaione Apalategi, Oteiza Fundazioko kideak eta Aitor Auzmendi Alkateak hartu zuten parte. Osasun arrazoiengatik ez zen Oteiza bertaratu baina Ataungo Udalak, herritarren izenean eskerrak helarazi zizkion.

Eskultura, San Gregorioko plazan kokatua izan da, Oteizaren nahia errespetatuz. Bi metroko luzera du eta brontze patinatuan egin dago. Lan hau 1969an egin zuen Oteizak. Orduan egindako piezaren altuera 18 zentimetrokoa da eta hau, haren proportzioak erabat errespetatuz egin da. Zentauroa lan figuratibo bat da eta Arantzazuko 9. apostoluaren erretratua da. Oteizak doan eskaini dio bere obra Ataungo herriari eta eskulturaren erreproduktzioa egitea 40.000 euro inguru kostatu zaio Udalari.

Honela ba, Ataunek eta Barandiaranek beste izen handi bat erantsiko die aurrez beste eskultura-lan batzuek dituen egileen zerrendari: Chillida, Mendizabal, Iturrarte, ... Oteiza.

ERREPIDEA ETA OINEZKOAK

Ibilgailuak errepidean gero eta abiadura handiagoan ibiltzen dira eta arriskua geroz eta handiagoa da oinezkoentzat.

Ataungo biztanleriaren gehiengoa errepide ondoan bizi dela kontutan izanda, errepidean oinezkoaren defentsa izango liratekeen zenbait neurri eskatu izan dira behin eta berriro Udal honetatik Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Departamentura eta neurri hauek bat edo beste aurrera eramanez dira eta besteren bat egingo denaren hitza jaso da.




Lehendik pintatuta zeuden zebra bideak ia ikusten ez zirela zeudela eta, hauek berriro pintatzeko baimena eskatu izan da behin eta berriro Diputaziora eta azkenean 2002ko ekainean jaso zen zebra bideak pintatzeko baimena. Baimen honetan beraiek markatzen zituzten zebra bideak pintatzeko lekuak eta zebra bide bakoitzaren inguruetan zutikako seinaleak jartzea ezartzen zen. Zebra bideen pintaketa egin da eta seinaleak ere jarri dira. Guztiaren kostua 5.497,63 eurotakoa izan. Esan behar da pintaketa eta seinaleak jartzea Udalaren gain izan dela.

Bestalde, Aian errepidea plaza ondoan pasatzen den gunerako, ibilgailuak ziztu bizian jaisten direla eta, abiadura jaitsiarazteko neurriren bat hartzea eskatu zitzaion Diputazioari. Zutikako seinaleak, guneko sarrera-irteeran bi koska, tarte horretan errepidea kolorez pintatu eta abarrekin jarduera aurrera eramango zela agindu zuen Diputazioak eta lan hauek laster egingo direla itxaroten da. Jarduera hau, zebra bideena ez bezala, Diputazioaren gain joango da.

KARTELDEGIAK

Udalak, herria txukun mantentzeko helburuarekin jarraituz, beste ekimen berri bat eraman du aurrera, hau da, karteldegia ipintzea herri guztian zehar. Honekin, Udalak, kartelak ipini nahi dituztenei leku egokiak eskaintzeaz gain, herria txukun izatea lortu nahi luke, kartel-degi hauetatik kanpo kartelak jartzea debekatuta geldituko baita. Guztira 18 kartel-degi jarri dira eta guzti honen kostua 14.706'94 eurotako izan da. Foru Aldunditik 901'52 euroko laguntza jaso da.



ATSEDEN TOKI ZABALIK

Dakizuen bezala, iazko urtea Atsedeen Toki elkarte itxita genduela hasi ginen. Urte askoz bertako ustiaketa Maite Goikoetxearen esku izan da eta 2002ko urtarrilaren 1an jardura honekin bukatzea erabaki zuen. Atsedeen Toki zabalik jarraitu zezan Udala eta Elkarteko Zuzendaritza elkarlanean aritu izan ziren, zerbitzu hau erakargarriagoa izan zedin baldintzak hobetuta, hainbat deialdi publiko egin zirelarik. Azkenean M^a Jesus Jaka aurkeztu zen deialdira eta Atsedeen Tokiren ustiaketa berari ematea erabaki zuen Udalak, honela, maiatzaren 17an berriro ere Atsedeen Tokiko ateak irekiz. Udalak esker ona agertu zien, bai Maite Goikoetxeari azken urteotan emandako zerbitzuarengatik, eta baita ere M^a Jesus Jakari berriro ere Atsedeen Toki martxan jartzea animatzeagatik.

GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA S.A.

Bailara mailan industrialdeak bultzatzeko helburuarekin Goierri Beheko industrialdea S.A. elkarte sortu dute SPRI, Foru Aldundia eta Goierriko Udalek, Ataungo Udala barne delarik. Elkartearen akzioei dagokien %51 SPRI-k jarri du, %24,5a Foru Aldundiak eta %24,5a Goierriko Udalek. Udalen artekoa banatzeko, %35a biztanleen arabera jarri da eta %65a industrialdea garatzen ari diren herrien artean jarri dute. Ataunek gaur egun Arauetan aurreikusia duen industrigunea garatze bidean du, baina etorkizunerako Arauen errebisioan aurreikusitakoa garatzeko elkarte hau baliagarri izango delakoan, Udalak bertan sartzeko erabakia hartu zuen. Ataunek 2.824 akzio hartu zituen, eta hauen truke, 25.968,05 euro ordaindu.

NITXO BERRIAK HILERRIETAN

2002 urtean guztira 72 hilobi berri egin dira, 48 San Martinen eta 24 San Gregorion. Horretarako 10 urte baino gehiago zeramaten hilarriak kendu egin dira hilobi hauentzat lekua izateko. Era berean, hilerrietako hainbat egokitzen lan egiteko aprobetxatu da. Esaterako, oinezko bideak egin, eskailerak zabaldu, farolak ipini, ... Deialdi publikoa egin eta gero, eskaintzarik onena aurkeztu zuen Zaharra Berri igeltse-rotzari adjudikatu zizkion obra-lanak Udalak. Guzti honen kostua 53.347,58 eurotako izan da: 21.174,47 euro San Gregorioko hilerrian eta 32.173,11 euro San Martingoan.



HERRIKO ELKARTEEI LAGUNTZAK

Urtero egin ohi den moduan, elkarte ezberdinek antolatzen dituzten kultur eta kirol ekintzak bultzatu eta babestu asmoz dirulaguntzak bideratu zituen Udalak pasa den urtean ere. Hauek izan ziren banatutako dirulaguntzak:

ELKARTEA

LAGUNTZA

EATE ABESBATZA

Hitzarmena 720

DANTZA TALDEA

Hitzarmena 750

ATAUN KIROLO ELKARTEA

Areto futbola 3.924

Ibilaldi Neurtua motza 406

Pilota (federatuak). 1.116

Pilota txapelketak..... 107

HAITZARRI ELKARTEA

Artzain Eguna 307

Umeen Eguna 131

Marron-i Ongi etorria 140

OARGI-TROSKAETA K.E.

Bertso Afaria 56

Mus eta Eskoba Txap. 73

Abentura astea 64

ATSEDEN TOKI ELKART

Jokoak..... 502

Santixal Ibilaldia / Santo Tomas 53

Ibilaldi neurtua 62

J. M. BARANDIARAN ESKOLA

Igeriketa kanpaina 386

Eskola ordutegia kanpoko kirola 947

Eguzki Berri aldizkaria..... 722

Otsoa Irratia 461

PELOTAZALE

Pilota part. 200

ARTADI K.E.

Bideo emanaldiak 31



SAN GREGORIOKO P A R K E A

Azkeneko urte hauetan haurren jolas parkeak falta ziren lekuetan jarri eta zeudenak berriz egokitzeko ahalegina egin da. Azkenekoa, San Gregorioko parkea izan da. Hau lehenago zegoen lekutik plazara pasatu da, ikusten baitzen azpiegitura gehienak leku berean izanez gero, kasu honetan plazan, beste giro bat emango ziola auzoari. Honetarako lehenago zeuden tresnak aprobe-txatu egin dira. Horrez gain, lehenengo parkean eta Estanko ondoan mahaia eta bankuak ipini dira, aisialdirako gune bezala. Guzti honen gastua 10.287,19 euroakoa izan da.

OTSO FESTA ETA BARANDIARAN KULTURALDIA



Ekaineen burutu ohi den Otso Festa eta abenduko Barandiaran Kulturaldia urtez urte indarra hartzen joan dira. Horren adibide, pasa den urtean bi ekitaldi hauek izan zuten egitaraua da.

Otso Festa San Joan suekin amaitu zen eta aurreko egunetan, herriko musika ikasle eta Otsoak Dantza taldearen jaialdia, "Hau Paraderoa!" antzerki emanaldia, Bertso eta kantu afaria, Urtz taldearen kontzertua, Txirindulari proba eta beste hainbat ekitaldi izan genituen.

Barandiaran Kulturaldian berriz, besteak beste, ondorengo ekitaldi hauek izan genituen: "Biblia osoa, gutxi gorabehera" antzerki emanaldia, Eate abesbatza eta Maite Idirinen kontzertua, Zaharkinak ekimenari buruzko hitzaldia, Argazki erakusketa, Benito Lertxundiren kontzertua e.a...

Hainbat kontzertu eta emanaldiz gozatzeko aukera izan dugu herritarrok.

www.ataun.net

Ataungo Udalak laster izango du bere Web gu-nea. Bertan, bi helburu nagusi bete nahi dira: Ataungo informazio orokorra zabaltu eta herritarrei Udaleko informazio eta zerbitzuetara gerturatzeko aukera berri bat eskaini.

Ondorengo atal hauek izango dira ikustatzeko: udala, Ataun, egutegi kulturala, turismoa, Aralar, eta beste batzu.

Esan bezala laster zuekin izango delakoan gaude. Bi hizkuntzetan izango da eta otsailaren amaierarako euskarazkoa erabilgarri izango da, eta geroxe-ago erdarazkoa.



ARGAZKI LEHIAKETA

2002ko Argazki Lehiaketako deialdira aurkeztutako lanak aztertutako ondoren, epaimahaiak ondorengo lan hauek saritzeko erabakia hartu zuen:

1.- Lehen saria (360 €)
Jenny Cruz-i ematea "San Martingo eliza gauez" argazkiarengatik.

2.- Bigarren saria (150 €)
Iker Apalategiri ematea "San Gregorio eta ilargia" izeneko argazkiarengatik.

3.- Hirugarren saria (90 €)
Joxe Ramon Agirrerri ematea "Lareo" argazkiarengatik.



Aipatzekoa, partaidetza eta argazkien kalitate handia. Abenduaren 16tik 31ra, ohi den bezala, argazki guztiak erakusgai egon ziren Udaletxeko ganbaran. Lehen bi sarituekin postalak egin dira eta hirugarrenarekin urteko egutegia.

ATAUN AZTERGAI BEKA

Ataungo Udalak, antolatzen duen Ataun Aztergai Bekaren bidez, herria bere osotasunean aztergaitzat harturik, arlo desberdinetan (historia, etnologia, soziologia, pertsonaiak, ...) lantzen eta aztertzen diren ikerlanak bultzatu nahi izaten da.

"Ataungo Kanta Zaharrak" ikerketa lanak, 1999ko IV. Ataun Aztergai Beka jaso zuen eta egilea Maximo Aierbe Mujika da.

Ataunen bildu dituen kanta gehienak erabat galduta edo galtzear dira usadioari dagokionez. Berandu baino lehen eta behin betirako desagertzeko arriskua uxatzearen, kanta zahar hauen doinuak eta hitzak idatzita jarri ditu Maximok.

Lan honetan, eske kantak, sehaska kantak, haur kantak, jolas girokoak, taberna girokoak, eztei girokoak, narratiboak, eresiazkoak eta alegiazko kantak azaltzen dira.

Liburua denbora gutxi barru izango da kalean, inprimatzeko prest dago eta.

TELEBISTA REEMISOREAK

Ataundarren gehiengoak Muski mendian jarrita da-
goen reemisorearen bidez ikusten du telebista. Reemi-
sore hau, Eusko Jaurlaritza eta Retevision erakundeek
mantentzen dute, bakoitzak bere arloan.

Hala ere, Ataun den bezalakoa izanik, txoko asko
gelditzen dira Muskiko reemisoreko seinalea ikustea
lortu gabe. Hori konpontzearen, Udalak beste bost
reemisore txiki jarrita dauzka. Honako hauek dira:
Aia auzorako, Lauztierrekarako, Arinberriagarako,
Imatzene alderako eta San Martingo kanposantu
gainekoa, San Martingo mendebaldeko. Reemi-
sore hauek Udalak berak mantentzen ditu.

Imatzene alderako jarrita zegoen reemisorea fun-
tzionamendutik kanpo gelditu zen. Hori horrela,
Eusko Jaurlaritzari berri bat jartzea eskatu zitzaion. Eusko Jaurlaritzak, ETB1, ETB2,
TVE1, TVE2 jarri ditu eta gainontzekoak Retevision erakundearen ardura direnez, jar di-
tzan eskatu zaio, erantzunik izan ez bada ere. Antena berriaren elektrizitate hornidura
Ataungo Udalaren kargu joan da eta antena berri hau Beamako zelaian jarri da. Jarri di-
ren kanalen mantentzeaz, Eusko Jaurlaritza arduratuko da.

Udalaren asmoa, pixkanaka Udalaren kargu dauden gainontzeko reemisoreak ere
Eusko Jaurlaritzaren eskutara pasatzea litzateke.



ASFALTATZE LANAK

San Martin auzoan zenbait asfaltatze lan
egin berri dira joan den hilean. Nahiko egoera
txarrean zeudela eta, Eskolako aparkalekua
eta Paskual Iturriko igoera asfaltatu dira eta
bere kostua 8.000 euro ingurukoa izan da.

Hasera batean Sanmartingo Plaza ere egi-
teko asmoa bazen ere, Plaza ondoan egiten
hasi diren urbanizazio lanak direla eta, mo-
mentuz zulo handienak bete eta hortan uztea
erabaki da.

• ARGITARATZAILEA •
ATAUNGO UDALA

• Lege Gordailua:SS - 1119/95

• MAKETAZIOA •INPRIMAKETA
antza S.A.L.

ATAUNGO UDALA ☎ 943.18.00.11